



**Graffitiak:** Hainbat belaunaldiren ahotsak batzen dituzten paretak 12.or

### Laudio

Latorro Ikastetxeko amiantoak kenduko dute 3. or.



### Kirola

Aitor Aspiazu, Cow Horsean Espainiako gidari onena 10. or.



### Iritziak:

TXUTXI  
ARIZNABARRETA 2. or.  
**ITZIAR**  
**LARRAZABAL** 6. or.  
ASIER  
AMONDO 7.or  
**TXANI**  
**RODRIGUEZ** 12. or  
ITZIAR  
URQUIJO 16.or



# aiaraldea • eus

Aiaraldeko hamabostekaria  
2016 /// Azaroak 3 ///  
OSTEGUNA  
58. zenbakia ///  
Doan ///  
[www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)



**MATEO BALBUENA**  
*"Gure ideologiak eragin zuzena izan zuen lubakietan izan genuen jokabidean"* 8-9.or

**Belaunaldi eta kultura ezberdineko emakumeak batzeko espazioa sortu dute**



Zaskaleari eta Etawasol taldeek kulturartekotasuna eta feminismoa lantzeko jardunaldiak antolatu dituzte Laudion. Irailean hasi ziren, eta abenduan amaituko dira. Bihar (urriak 4) izango da hurrengo tailerra, 17:30ean Kultur Etxean. Bertan, Saharako emakumeek maitasuna eta sexualitatea nola ulertu edo bizi duten ezagutzeko aukera egongo da.

Bizipen eta kreatibitatearen bidez, kultura ezberdinetako emakumeek espazio publikoetan jasaten dituzten oztopoak ezagutu eta gainditzea da helburua.

**ETXEBIZITZA HUTSEN ZERGA:** Etxe hutsen jabeek Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga handitzeko aukera izango dute Arabako udalerriek 6 or.

HARPIDETZA EGITEKO bidali **alta** hitza



688 86 29 49 telefono zenbakira



agenda@aiaraldekoeuska.gintza.eus helbidera

AGENDA OHARRAK BIDALTZEKO idatzi agenda@aiaraldekoeuska.gintza.eus helbidera

JASO EZAZU HAMABOST EGUNERO

# AIARALDEKO EUSKARA AGENDA

GURE ESKUALDEAN EUSKARAZ EGITEN DIREN EKITALDIEN AGENDA

AIARALDEKO EUSKARA AGENDA



# \_iritzia



**Txutxi**

Ariznabarreta  
INDEPENDENTISTA

## \_Balkoitik

*Badakigu zer, erabaki dezagun nola!*

Euskal Herriko panorama politikoa sarritan noraezean blokeaturik gauden sentazioa dugun arren, etorkizunera begira estrategia bat zehazteko oinarritzakoak diren zenbait kontu, behintzat, inoiz baino argiago daude:

1. Euskal Herriak bere buruarren jabe izan behar du bere etorkizuna eraikitzeko.

2. Espainiar eta frantziar Estatuaren barruan ez dago inolako burujabetza aukerarik, eta dependentzia egoera honetan gure etorkizun politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala... hipotekatzen ari gara.

3. Estatuakiko alde biko harreman/negoiazio eskema agortuta dago, iragana da, kimera bat. Bide horrek "statu quo" menperatzailea betiketza besterik ez dakar. Beraz, alde bakoitzeko bidea da gelditzen zaigun aukera eraginkor bakarra. Espainia eta Frantziaren jakobinismo eta ultranazionalismo zanpatzailearen aurrean demokrazian, justizia sozialan, dibertsitatean eta elkaritasunean oinarritutako independentismo aurrerakoia da alternatiba bakarra. Hots, Euskal Estatuak eratu eta Euskal Errepublikak aldarrikatzea.

4. Posiblea da. Eskozia eta Katalunia egiten ari diren bidea da horren adierazgarri. Gehiengo sozial independentista metatu eta aktibatzea da gakoa.

Eta hau honela izanik, zer demontre egiten dugu hain epel! Badakigu zer nahi/behar dugun. Badakigu nora goazen. Erabaki dezagun, behingoz, nola egin bidea!



**Rosa Helena**  
Zaintzailea

Alde nago. Azken finean, etxe bat hutsik badago jabeak dira dirua galtzen ari direnak. Batzuetan alokairu baten bila zaudenean ez duzu etxea alokatuko dizun inor topatzen. Zergak igoz gero imajinatzen dut etxe gehiago jarriko direla alokairuan.



**Elva**  
Zaintzailea

Alde nago. Etxebizitza huts asko daudela diote. Begi onez ikusiko nuke hutsik dauden etxeak etxebizitza behar dutenei ematea, alokairu eskuragarri batekin. Jende asko dago etxerik gabe, eta denok dugu etxebizitza bat izateko eskubi-dea.



## \_GALDERA

Etxe hutsei zergak jartzearen alde zaude?


**BIDEA WEB-GUNEAN**

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



**Jokin**  
Jubilatua

Ez nago batere ados. Imajinatu ezazu aitona zurekin bizi dela zaintza behar duelako. Zergatik ordaindu behar du zerga gehiago bere etxean ez bizitzeagatik, 420 euroko pentsio bat badu gainera? Gero politikariek diru hori poltsikoan sartzeko? Lapurreta bat iruditzen zait.



**Joxean**  
Langabea

Gazteek ez daukate emantzipatzeko aukerarik. Jendeak alokairuan jarri beharko litzuke etxe hutsak. Etxebizitza izatea eskubide bat da. Ez zait bidezkoa iruditzen etxe hutsak egotea eta jendea horiek erabiltzeko aukera ukatzea. Herrialde honetan bakarrik gertatzen da hori.



**Bego**  
Etxeko langilea

Alde batetik alde egon nintekete, baina beste batetik ez. Zure gurasoena den edo herentzia baten bitartez jaso duzun etxe bat baduzu eta bere horretan mantendu nahi baduzu ez lizukete zerga gehiago ezarri beharko. Kasuaren arabera izan beharko litzateke.

## \_gutunak

**61 egun**

Christian Alemany (Amurrio)

Bi hilabete. Bi gertakari. Zuritik beltzera. Akto-re berdina ia. Testuinguru komuna eta ulertzen zaila dirudien mezua. Bi puntuen arteko lotura sasi-kronika honetan.

**Maiatzak 7**

Merezimenduz eta arrazoiez hornituta omen duen Amurrioko Udalak eta Musika Eskolak Diego Martin Etxeberria. Orkestra zuzendariak sari garrantzitsuak bildu ditu nazioartean. Musika ikasketak bere sorterrian abiatu zituen; Amurrio-Gasteiz-Bartzelona-Berlin, horratx bere ikasketa bidaia partikularra. Txalo eta laudorioek, kontrako bidea. Nazioarteko sariak lehenik, ondoren Gasteizen pregoilari eta azkenik, herrikoideen aitortpena. Ekitaldia EMUSIK jaialdiarekin bat gauzatu zen, Amurrio 59 egoitzetako bat zela profitatuz. Testuinguru indartsua eta ordezkartza neurrikoa ere: Josune Irabien alkatea eta Musika Eskolako Fundazioko lehendakari Monserrat Canive eta Pedro Bazterra zuzendaria. Ekitaldi zaindua eta hedabideetan oihartzuna.

**Uztailak 8**

Musika Eskolako Juntaren ohiko batzarra. Gai-or-

denaren azken puntuan oso bestelako kontua: langile baten kaleratzea, oboe eskolak eskaintzatik ezabatuz. Kaleratzearen alde bi alderdi eta fundazioko lehendakaria, kontra beste bi alderdi eta abstentzioa zuzendariak. Kaleratzeari baietzkoa beraz. Fokurik gabe, titularrik gabe. Lana sortzea gauza polita baita, deuseztatzea ez horrenbeste. Formak ere aipatze-koak. Kaleratzearen irakaslea informatu gabe, jada matrikulatuak ziren ikasleak informatu gabe. Musika Eskolako klaustroak irailean jakingo zuen 19 urtez lankide izandakoaren patua, norberak leharkeena atalean. Diegok oboea ikasi zuen Amurrioren. Txalotu zuten berberak, beste Diegorik ez dute nahi. Hala ote? Bi gertakariok lotuz, galdera-erantzunak par-rastan.

**Post**

Kaleratzea ekidin zitekeen, araurik aldatu gabe, nahikoa zen inplikatuak aurretik informatzea; kaleratzea ondorio baino helburu, beraz. Krisiaren abaroen, bi lanpostu gutxiago jada, 16 langileko lan-talde batean. Aurrekontu eta langile kopuru aldetik, Udaleko erakunde autonomo garrantzitsua da Musika Eskola. Lotura egina, zein da norabidea?

**Argitaratzailea:**

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

**Tirada:**

10.000 ale.

**Maiztasuna:**

Hamabostekaria

**Lege gordailua:**

BI-1230-2013

**Posta elektronikoa:**

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

**Publizitatea:**

publizitatea@komunika.eus

Tlfnoa: 688 62 53 94

**Web-gunea:**

www.aiaraldea.eus

**Helbidea:**

Nerbioi Kalea 1, 3. esk.

Laudio. Araba. 01400

**Telefonoak:**

Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

**Egunkari hau laguntzen dute:**



Hezkuntza,  
Hizkuntza Politika  
eta Kultura  
Sailak (Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



**Graf!k Koop.**  
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)  
94 672 65 43  
info@grafiksarea.com



**JEZ Sistemas Ferroviarios**  
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)  
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es



Uribarri etorbidea 35  
20500 Arrasate  
ausolan@ausolan.com



**BASA LARRINA**  
euskal TOPAGUNEA

# \_herriz herri

## Laudio



Estaltzeko aurrekontua 92.000 eurokoa da. Argazkia: Laudioko Udala

## Abian da Aretako jolas parkea estaltzeko proiektua

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Laudioko Udalak abian du Aretako jolas parkeko joko zonaldea berri-tzeko proiektua. 117.000€ erabili-ko dira orotara jolasgunea hobetzeko: 92.000€ zonaldearen estaldura eraikitzeko eta 25.000€ joko eta segurtasun zoladura berriak jartzeko.

Ingenia S.L. enpresak proposatutako proiektuak polikarbonato zeharrargiz eraikitako tapalia au-

rreikusten du parkeko jolastokia babesteko. Urdin koloreko tonu bi uztartuko ditu argitasuna bermatzeko.

Tokiko Gobernu Batzordeak ebatzitako proiektua burutzeko eskaintzak jasotzeko epea azaroaren 14an itxiko da, eta lanen esleipena behin erabakita, enpresa irabazleak lau hilabeteko epea izango du lanak burutzeko.

## Udan kenduko dute Latorro ikastetxeko amiantoa



Eskolako bi pasabidetako amiantoa kenduko dute. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

2017ko udan kenduko dutela Latorro ikastetxeko amiantoa iragarri du Amets Meaza udal gobernu taldeko kideak. Urriaren 27ko udalbatzan jakinarazi zuen erabakia.

EH Bilduko ordezkariak Omiaren galderari erantzunez plazaratu zuen amiantoari buruzko txostenajaso dutela dagoeneko. Kontratutako enpresaren analisiaren arabera, egoera ez da larria, materiala ez baita manipu-

latzen. Hala ere, gomendagarritzat jo du Udalak amiantoa kentzea eskolako bi pasabideetan.

Eusko Jaurlaritzako bi teknikari ere parte hartu dute prozesuan eta azpiegiturak bisitatu dituzte.

2017ko uda baliatuko dute horretarako, hilabete horietan ez baitago langilerik edo ikaslerik. Dena den, udal ordezkariak azpimarratu zuen ez dagoela arriskurik.

## Urquijok prozedura hasi du Udalaren aurka urriaren 12an irekitzeagatik



ERREDAKZIOA |

Urriaren 12an, Hispanitate Egunean irekiziren Udalak salatu ditu Carlos Urquijok. Horien artean daude Laudio, Aulesti, Orereta eta Hernaniko tokiko erakundeak. Hasteko, erabakiaren arduraduna nor den argitzen duen akordioa bidaltzeko eskatu du PPko kideak. Dokumentu horien arabera jarriko du epaitegian salaketa Carlos Urquijok.

Laudioko udal langileek duela urte batzuk erabaki zuten urriak 12an atek zabaltzea, baina aurretik jabetu da Carlos Urquijok Badalonako aferaren ondorioz.



(BIDEOA) Pintxo Pote saioaren grabaketa: ETB 1eko "Pintxo pote" telebista saioa grabatzen egon ziren iragan asteburuan Laudio. Azaroaren 22an aurreikusi dute saioa emititzea.

## Ez dute kalean bizi den pertsonarik topatu Laudio inguruko zenbaketan

ERREDAKZIOA |

Urriaren 26ko gauean etxegabeen zenbaketari ekin zioten Laudio, EAE osoko ekimena jarraiki, eta ez zuten inor aurkitu egoera horretan. 2014an egin zen zenbaketa azkenekoz, eta 3 pertsona topatu zituzten kalean lo egiten.

## 700.000 euro aurreztuko dira LHUI sare publikoan sartuta



ERREDAKZIOA |

Laudioko Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea sartzeaz dago Eusko Jaurlaritzako sarean. Udalbatzak onartu du ondasunak jaurlaritzaren esku uztea eta lagapena onartu bezain laster dekretua kaleratuko du publiko egiteko.

Modu horretan emango zaio amaiera hainbat urteko prozesu luzeari. 2013an onartu zen Gasteizko Legebiltzarrean ikastetxea sare publikoan sartzea ahalbidetzen duen legea.

Udal Gobernutik adierazi dute ikastetxea sare publikora pasata udalak 700.000 euro aurreztuko dituela urtero. EAEko udal ikastetxe bakarra da Laudiokoa.

## AUZO BATZARRAK

### ARETA

Azaroak 7, 19:00etan Aretako Kultura Etxean.

### ARRAÑO

Azaroak 8, 19:00etan Udaleko Erabilera Anitzeko aretoan.

### GARDEA

Azaroak 9, 19:00etan Gizarte Etxean.

### NEKAZAL EREMUA

Azaroak 10, 19:00etan Udaleko Erabilera Anitzeko aretoan.

### UGARTE

Azaroak 14, 19:00etan Ugarteko elizan.

### LATORRO

Azaroak 15, 19:00etan Latorroko ikastetxean.

### LARRAZABAL

Azaroak 16, 19:00etan Toki On jatetxean.

### HERRIGUNEA

Azaroak 17, 19:00etan Kultura Etxeko Arraño gelan.

\*Doako haurtzaindegi zerbitzua eskatzeko 944 034 850



1945. urtetik Laudio zurekin

Karmen Kalea 13, behea  
LAUDIO (Araba)  
946 72 31 00



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK

\_herriz herri

## Artziniega

### Igerilekuetako edukiontzien erreketatik ari da Ertzaintza

ERREDAKZIOA |

Artziniegako Udalak salatu du igerilekuetako 7 edukiontzi erre zituztela iragan astean. Berez, suhiltzaileek itzali behar izan zuten sutea. Tokiko erakundeko ordezkariak adierazi dute ez dakitela nork piztu zuen sua, baina Ertzaintzaren esku utzi dutela ikerketa.



(ARGAZKI GALERIA) Putxera Lehiaketa: **Urriaren 29an izan zen Artziniegako putxera lehiaketa. Antzinako erara indabak prestatzea zen helburua. Eguraldia lagun, herritar ugari bertaratu ziren.**

## Orozko

### Herriko futbol zelaia berritzeko obrak lau aste barru amaitzea aurreikusi dute

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Orozko Udalak futbol zelaia aldatzeko lanak abiatu zituen urriaren 24an. Eguraldia aproposa bada 4 astez luzatuko dira lanak.

Berez, duela 19 urte jarri zuten oraingo zelaia eta erabilera dela medio, hondatu da. Horrek kirolarien osasunean eragin kaltegarria izan du eta lesioak eragin ditu.

#### 145.200 euroko inbertsioa

Hau guztiagatik erabaki zuen Udalak lehiaketa publikoa deitzea, 149.000 euroko kontratua erabaki zuen. Deialdia Mondo Iberica enpresak irabazi du, 145.200 euroko eskaintzarekin.

Zelai berria kautuz eta gai organikoz osatuta egongo da, kortxo, zehazki. Horrez gain, zen-



**Kortxo eta gai organikoz osatutako zelaia izango da.** Argazkia: Aiaraldea

bait hobekuntza gauzatuko dituzte. Futbol 7ko eta 11ko atezaridunak jarriko dituzte, eta horien atzean baloiak gelditze-

ko sarea. Era berean, jokalarien aulkien hornidura ere enpresaren esku geratuko da, besteak beste.

### Gaztainak herrian izandako garrantzia aldarrikatu dute

ERREDAKZIOA |

Igandean ospatu zen Orozko Gaztaina Egunaren XI. edizioa. Eguraldia lagun, herritar ugari hartu zuen parte herriko kirikiñasiak bisitatzeko eginiko ibilaldian, gaztainak herrian izandako garrantzia aldarrikatzeko.



**Herritar ugari hartu zuen parte ibilaldian.** Argazkia: Uxue Alberdi

## Aiaraldea

### Nagusientzako ikastaroak egingo dituzte Artziniegan eta Aiaran

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Artziniegako eta Aiara Udalen, Gurutze Gorriarekin batera, zenbait ikastaro antolatu dituzte azaroangauatzeko. Zehazki, sakelakoak eta tabletak erabiltzeko eta harrapaketak prebenitzeko saioak egingo dituzte.

Teknologia berriei lotutako tailerra urriaren eskaini zuten Aiaran eta orain Artziniegan izango da, azaroaren 8an eta 9an, asteartean eta asteazkenean, hain zuzen. 17:00etan hasiko da eta 3 ordukoak izango da saio bakoi-tza. Artziniegako udaletxe zaha-

rrean eskainiko dute formakuntza, eta izena emateko 945 39 63 53 telefonora deitu beharko dute interesdunek.

Bestalde, 64 urte gorako lagunek aukera izango dute harrapaketan prebentzioa lantzeko Aiaran eta Artziniegan. Artziniegan azaroaren 17an izango da hitzordua erretiratuen egoitzan 17:30ean, eta Lantenoko eskola zaharrean azaroaren 24an 17:00etan. Izena emateko 945 39 63 53 eta 945 39 90 13 deitu beharra dago.



**Herri txiki, infernu handi: Azaroaren 13an emitituko dute ETB 1en Aiara grabatutako saioa. Orozkokoa, berriz, abenduaren 4an.**

### Gaur amaituko da enplegu programetan izena emateko epea



**Lanbidek Amurrioren bulegoan eman behar da izena.** / aiaraaldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Artziniegako, Okondoko, Urduñako eta Aiara Udalen, Aiara Koadrilarekin batera, enplegu programa abiatu dute Sartu enpresaren bitartez.

Lana lortzeko arazoak dituzten 6 pertsona kontratatuko dituzte urte erdiz mantentze eta konpon-

keta lanak gauzatzeko. Apuntatzeko epea gaur (azaroak 3) amaituko da. Interesdunek Amurrioko Lanbide bulegora joan beharko dira.

Berez, 5 lagun hartuko dituzte, seigarren behargina langile burua izango da.

\_herriz herri

## Amurrio

### 400.000 euro non inbertitu erabakiko dute herritarrek, parte hartze prozesuaren bidez



Alderdi guztiek bat egin dute ekimenarekin. Argazkia: aiaraaldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Amurrioko Udalak adostasun osoa lortu du alderdien artean parte hartze prozesua abiatzeko. Horren bitartez herritarrek erabakiko dute 400.000 euro zertan inbertitu.

Diru kopurua bi ekitalditan banatuko da: 2016 eta 2017 urteetan, alegia.

Prozesuak 4 fase izango ditu. Horietan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da 16 urte edo gehiago izatea eta Amurrioren erroldatuta egotea. Elkarrekin kasuan, kide batek, gutxienez, bete beharko ditu baldintzak.

Lehenengo fasean proposamenak jasoko dituzte. Aintzat hartu behar dira bi kontu; alde batetik batzar administratiboak kanpoan geratuko direla, eskuin ez baitaude udalak bertan. Eta, bestetik, inbertsioak besterik ezin direla iradoki.

Horretarako postontziak jarriko dituzte, web-gunea plaza-ratuko dute ([www.amurriokoekin.eus](http://www.amurriokoekin.eus)), eta posta elektronikoa ere egongo da ([partehartzea@amurrio.eus](mailto:partehartzea@amurrio.eus)). Gainera, saio irekiak egingo dira auzoetan, besteak beste.

Bigarren urratsa Udalak eman- go du, proiektuen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa bermatu beharko baititu, eta balorazioa egingo du. Horrez gain, gutxienez balio etikoak beteko dituztela ziurtatu beharko dute.

Proiektu guztiak batu ostean, lehenetsiak finkatuko dituzte herritarrek. Heltzen diren egitasmo guztien artean 20 hautatuko dituzte eta horretarako talde eragileak irizpideak finkatuko ditu. Berau udal teknikariek, elkarrekin eta auzoko ordezkariak eta norbanakoez osatuta egongo da.

Deialdi irekietan herritarrek ezarriko dituzte lehenetsiak aurrez zehaztutako irizpide horiek erabilita.

#### Herri bozketa

Maiatza edo ekainean herri bozketa antolatuko dute amurrioko- rrek hautatu ditzaten egitarituko diren proiektuak; 400.000 euroko diru-saila bukatu arte. Ondorioz, proiektu bakarra edo gehiago gauzatzea da asmoa, herritarren nahien arabera.

Bozketan 16 urtetik gorako eta Amurrioren erroldatutako lagunek parte hartuko dute.

Prozesuaren azalpen guztiak emango dituzte azaroaren 9an Katedesi Aretoan 18:30ean egingo den asanbladan.

### Bi zinegotzi berri egongo dira Amurrioko Udal Osoko Bilkuran



ERREDAKZIOA |

Zinegotzi berri bana sartuko dute Amurrioko Udalean PSE-EEk eta EH Bilduk. Zinegotzi horietako bat Nuria Gonzalez Cabrera da. PSE-EE alderdiaren eserlekua bete du berak. Irene Novales ordezkatu du modu horretan. Iragan abuztuaren zende- zen Novales, zinegotzi bezala bederatzi urte egon ondoren. Ordu- tik hona hutsik egon da eserlekua.

Bigarren zinegotzia Juanjo Yarritu izango da. Eva Blancoren ordezkari sartuko dena bera. Eva Blanco EH Bilduko kideak Legebiltzarrean zentratuko du bere jardueraren ondorioz, uko egin dio Amurrioko Udalean zinegotzi izateari.

Izan ere, Legebiltzarreko Lehen Presidenteorde izendatu dute eta horrek haren dimisioa ekarri du, ardura berriak dakarren lan karga dela eta.

## Urduña

### Abenduan irekiko dute Udal liburutegi berria Alondegian



ERREDAKZIOA |


Abenduan irekiko dute Urduña- ko Udal Liburutegi berria, Alondegian. 30.000 euroko inbertsioa egin du Udalak obretan.

179 metro karratu izango ditu liburutegi berriak, eta lau areto- tan banatuta egongo da. Horietako bitan liburuak eta informatika gailuak egongo dira. Beste biak ikasketa gelak izango dira. Umeentzako gela, berriz, 2. so- lairuan egongo da.

#### Teknologiak apustu

Teknologia gailu ugari izango ditu liburutegiak: wifi-sarea, ordenagailuak, ordenagailu- era- mangarriak, tabletak eta liburu elektronikoen irakurgailuak, besteak beste. Hortaz gain, liburu- ren katalogoa ere berrituko dute.

### Estilo anitzetako hogeitazentzako eskainiko dituzte Musika Astea



ERREDAKZIOA |

Azaroaren 18, 19, 20, 25 eta 26an egingo da Urduña-ko Musika Astea. Hogeitazentzako egongo dira Liborio kolektiboak antolatutako egitarauak. Hainbat estilo- tatarako musika entzuteko aukera egongo da bost egun horietan. Aurreko urteetako ildoari jarraiki, aurten ere herriko hainbat ta- bernetan izango dira kontzertuak. Hilaren 19an musika eman-aldi ugari egongo dira Foru Pla- zan, eta 26an herri bazkaria eta jam sessiona egingo dira Gazte- txean, amaiera ekitaldi gisa.

### Greban jarraitzen dute Bañueta kiroldegiko langileak



Langileak atzo eginiko elkarretaratzea. Argazkia: Kiroldegiko langileak

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Greba mugagabe jarraitzen dute Bañueta kiroldegiko langileak, lan baldintza hobekien barne- bilduko dituen hitzarmen bat aldarrikatzeko.

Iragan astean bilera egin zuten Kirolzer enpresarekin, baina ez zuten akordioa lortu. Gaur (azaroak 3) berriz elkartuko dira enpresa-

ren zuzendaritzarekin langileen ordezkariak. Iragan osteguneko Udal Osoko Bilkuran ere egon ziren langileak euren aldarrikapenak plazaratzen. EH Bildu eta Orain Amurriok kiroldegia- ren publikazioa aldarrikatu zuten, baina udal gobernuak azaldu zuen ezinezkoa zela halakorik egitea.

### Saharako Errefuxiatuen kanpamentuetako ur arazoak, ikasgai



ERREDAKZIOA |

Saharar Errepublikar Demokratikoaren aldeko lagunek jar- dunaldia egingo dute azaroaren 10ean Kultur Etxean 18:00etan. Kanpamentuetan uraren behar- rakk sortzen dituen arazoak lan- duko dituzte eskulan tailer baten bitartez. Horrez gain, "Pez Limbo" konpainiak antzezlan eskai- niko du. Emakumeek borrokan duten protagonismoa ere jorra- tuko dute.

### Arabako Guraso Eskolen Topaketa egingo dute azaroaren 12an



ERREDAKZIOA |

Amurrioren zinegotziak Arabako Guraso Eskolen IX. edizioa. Azaroaren 12an egingo dute ekime- na, Amurrioren Antzokian. 10:00etatik 14:00etara luzatuko da egita- raua. Teknologia berrien eta nerabe- arteko harremanei buruzko hitzaldi batek beteko du goizaren gehiena. Azaroaren 7a baino lehen eman behar da izena parte hartze- ko, ondorengo e-mailen: [epm- raba@yahoo.es](mailto:epm- raba@yahoo.es).

# \_sozioekonomia



Itziar  
Larrazabal  
ELA

\_Argia

TTIP eta CETARI ez azaroaren 5ean!

TIP eta CETA itunak nazioarteko merkataritza itunak dira. Itun hauekin finantza kapitalak eta multinazionalak ekonomia, inguru-giroa, legeak eta pertsonen eskubideak beraien mesedetan zuzentzeko berme juridikoak eskuratu nahi dituzte.

Itun hauek merkatuen eskubide eta askatasunak bakarrik defendatzen dituzte, ez gizartearenak. Nazioarteko enpresen boterea bermatzen duten arau, hitzarmen eta itunen sarea loditu nahi dute.

Gure herriari, nahi duen eredu ekonomiko, sozial, politiko eta instituzionala erabakitzea dago, herriak, demokratikoki, adierazitako borondatea delarik muga bakarra.

Beste mundu bat posiblea da, herrien elkartasunaren bitartez. Ekintza politiko, ekonomiko eta instituzionalaren lehentasunak aldatuz, pertsonen beharrak, merkaturak eta kapitalaren interesen gainetik ezarriz.

Horregatik Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak azaroaren 5ean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deialdia zabaldu nahi du: Bilbon Unamuno plazan egingo da kalejira 13:00etan, eta 17:30ean manifestazioa aterako da Plaza Biribiletik. Donostian, aldiz, 17:00etan abiatuko da protesta Bulebarretik. Gasteizen Andra Mari Zuriaren plazan kalejira egingo dute 12:00etan, eta Iruzean bus geltoki zaharretik aterako da manifestazioa 13:00etan.

## Etxebizitza hutsei zergak ezartzeko aukera izango dute Arabako udalek datorren urtetik aurrera

% 50 arteko erretegia ezarri ahalko diete 2017tik aurrera udalerrri arabarrek etxebizitza hutsen jabeen, Ondasunen Higiezinaren gaineko Zergaren bidez. EUSTATen arabera, 4.215 etxe huts daude eskualdean.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Datorren urtetik aurrera, Arabako udalerriek %50 arteko erretegia ezarri ahalko diete etxebizitza hutsei Ondasunen Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) bidez. Inor erroldatuta ez dagoen etxeak kontsideratuko dira etxebizitza huts.

Iragan astean onartu zen Arabako Batzar Nagusietan udalek hori egitea ahalbidetuko duen foru araua. EH Bildu, EAJ eta PSE-EEren botoekin eta Podemos Ahal Duguren abstentzioarekin ateratu zen aurrera legea.

EH Bilduk aurkeztu zuen proposamena. Koalizioaren asmoa etxebizitza hutsei gehienez %150eko igoera ezartzea zen. EAJrekin negoziatu ostean, baina, erretegiaren proposamena %50era jaitsi zuten. Gauzak hala, ehuneko hori da udalerrri arabarrek etxe hutsei gehienez aplikatu ahalko dieten zerga.

Alkateen adierazpenak

Aiaraldea Egunkaria Amurrio, Laudio, Okondo, Aiara eta Artziniegako alkateekin jarri da harremanetan, etxe hutsei erretegi hori ezartzea baloratu duten galdetzeko. Antzeko erantzuna eman dute guztiak: aztertu egin behar dutela. "Oraindik ez dugu eztabaiatu", adierazi du Aiara alkatea den Gentza Alamillok, "tasa eta arau fiskalak aztertu behar ditugu, beste gauza batzuen artean". Amurrioko Udaletik ere gaia aztertzeke dutela adierazi dute.

Ildo bereko adierazpenak egin ditu Okondoko alkatea den Sergio Tatok: "Okondoko egoera zein den baloratu behar dugu lehenbizi". Laudioko alkatea den Natxo Urkixok, bere aldetik, araua nola garatzen den ikusi behar dela dio: "Araua aplikatzeko prozedurak zehazten direnean baloratu dugu zer eta nola egin". Zentsu horretan, Artziniegako alkatea den Iñigo Gomez 2018ra begira jarri da: "udalean zeozer onartzekotan urte horretan jarriko litzaizteke martxan".



Bi biztanleko etxebizitza bana dago Aiaraldean, EUSTATen datuen arabera. Argazkia: Jon Catalan

### AIARALDEA DATUTAN

# %20

Aiaraldeko bost etxebizitzetatik bat hutsik dago (4.215 etxe). Hutsik dauden etxebizitzak (%5.4) eta etxebizitza jendegabetuak (%15) daude. Iturria: EUSTAT

## Etxe 1 dago Aiaraldean bi biztanleko

Iturria: EUSTAT

Bi biztanleko etxe bana

Zaila da zenbat etxe huts dauden jakitea. 2011koa da EAEn egindako azken etxebizitza errolda. EUSTATEk egin zuen zenbaketa hori eta 4.215 etxe huts kontabilizatu zituen Aiaraldean. Errolda horren arabera, 21.114 etxebizitza egongo lirake eskualdean, bana bi biztanleko. Deigarria da Orozkoko kasua, EAEn proportzioan 2.000 biztanletik gorako etxe huts gehien dituen udalerrria baita.

Alokairuena da nabarmentzekoa den beste datu bat, eskualdeko etxebizitza guztien % 7,65 baino ez baitago egoera horretan. Europar Batasuneko ehuneko txikienetariko da hori (ikus eskumako grafikoa). Prezioak, berriz, altuak dira. Araban 729 eurotan kokatzen da batzuek beste alokairua (EUSTATen datuen arabera), gutxienez 645,3 eurokoa den bitartean.

Hiztegi lagungarria

Deigarria<sup>0</sup>, adierazgarria, atentzia berenganatzen duena

\_alokairua ehunekotan



■ Jabegoan ■ Alokairuan edo beste formaren batean emana

Aiaraldea herrialde bat balitz, alokairuan etxebizitza gutxienez dituzten Europar Batasuneko rankingean zazpigarren postuan legoke (Espainiak bederatzigarrena dauka).

Iturria: EUSTAT

# \_jendarte

## Bizipenen bidez, emakume eta kultura ezberdinak lotzeko zubia

Zaskaleari eta Etawasol taldeek emakumeen errealitate ezberdinak ezagutzera emateko jardunaldiak antolatu dituzte. Kultuarteotasuna eta feminismoa landuz, Saharako eta Euskal Herriko emakumeen egoera eta bizipenak ari dira lantzen.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Nola bizi dute egunerokoa Euskal Herrian emakume sahararrak? Eta euskaldunek nola ikusten dituzte beste kulturak?

Saharako emakumeen borroka, historia, mundu ikuskera eta bizipenak. Horiek eta gehiago ari dira lantzen Laudion, Zaskaleari taldeak eta Etawasol elkarteak antolatu dituzten jardunaldietan.

Kreatibitateari bide emateko emakumeentzako tailer batetik sortu zen Zaskaleari ekimena, eta belaunaldi eta kultura ezberdinetako emakumeen artean harremanik ez zegoelako otu<sup>(1)</sup> zitzaizen zikloa antolatzea. Espazio publikoetan emakumeak ikustaraztea dute helburu, eta sormena bide.

Hala, Laudion emakume saharar ugari dagoela eta beraieki aurreiritzi asko daudela jabetuta<sup>(2)</sup>, haiengana jo eta jardunaldiak elkarrekin prestatzea erabaki zuten. Emaizta aberatsa ari da izaten, 25 emakume ari baitira batzabeste parte hartzen. Ikasleak, gazteak, jubilatuek, orozkoarrak, aretarrak, audioarrak... Adin, perfil eta kultura ezberdineko topagune bat sortzea lortu dute. Audioko Kultur Etxean elkartzen dira ostiralean 17:30etik 19:30era. Bihar (azaroak 4) izango da hurrengo saioa.

### Bizipenak gidari

Bizipenak dituzte gidari. Aurreneko saioan Saharako emakumeen egoera eta haien erreferenteak jorratu<sup>(3)</sup> zituzten.

Bigarrenean, berriz, Laudiora nola heldu ziren eta egunerokoa zelan bizi duten azaldu zuten. Horretarako esperimentu bat proposatu zieten partaideei: talde txikietan malfha jantzita, Mendebaldeko Saharako emakumeen oihala, eguneroko hainbat ekintza xume<sup>(4)</sup> burutzea. Hala, Euskal Herriko eta Saharako emakumeak elkarrekin ibili ziren kaletik paseatzen, tren orduetgia galdeztzen, supermerkatuetan erosketak egiten... "Kaleetan presente dauden begirada eta komentario arrazistak lehen pertsona sentitu genituen, isiltasuna, deserosotasuna..." dio Mirók. Une batez, horrela, eguneroko bizi dutena eza-



Aiaraldeko hainbat emakume ari dira parte hartzen jardunaldietan. Argazkia: Zaskaleari



**Fatima El Ghalia Biballa**  
Etawasol

**"Emakume sahararrak aktiboak gara. Gure familia eta herriagatik borrokatzen dugu"**



**Tania Miró Porteres**  
Zaskaleari

**"Belaunaldi eta kulturen arteko harreman ezagatik antolatu ditugu jardunaldiak"**

gutzeko aukera izan zutela gehitu dio Fatima El Ghalia Biballa Etawasol elkarteak kideak.

Jendea galdetzeraz ausartzea gustatuko litzaioke El Ghaliari, "gure kulturaren esanahia erakutsi nahi dugu, tabuekin hautsi".

Horregatik, sortzen diren espazio eta dinamika hauei esker kontzientziario lana egiten dela uste du, errealitatea bestelakoa dela erakutsiz. "Emakume sahararrak errefuxiatuak gara, ez gara nahi dugulako etorri hona, Francoren diktaduraren eta espainiar zein marokoar gobernuen erruz baizik".

### Lurralde okupatueto egoera

Lurralde okupatueto egoeraz galdetuta, gatazka oso gogorra dela dio: "Emakume asko geratu dira familiarik gabe, sendiak desegituratuta daude, zati-katuta; batzuk kanpamenduetan eta beste batzuk seme-alabekin".

Horri, gerragatik alargun geratu diren familiak gehitu behar zaizkio. Alabaina, emakumeen borroka nabarmendu du, oraintsu hil den Sidmoirena, kasu. "Gizonezkoekin militarrez jantzita gudan joan zen lehen emakumea

izan zen, kamioi eta autoen gidaria, eta ama. Jardunaldietan aipatzearekin omenaldia egin nahi genion. Emakume eredu garri asko ditugu Saharan", erantsi du.

### Talka kulturei aurre eginez

Talka kulturei aurre egiteko beste hainbat gaiez ere aritu dira: emakume musulmanekiko jendartean dauden uste okerrez, bigarren planoan geratu den Saharako emakumeen historiaz...

Biharko saioan maitasun erromantikoak hitz egingo dute haimetatik, sexualitatea eta afektibitatea nola bizi duten eta bertako emakumeen jarrera zein den kontatzeko. Hurrengoan, aldiz, kreatibitatea izango dute ardatz, musika, literatura, dantza... Zikloari amaiera emateko Saharako janari, edari eta ohituren mintzatuko dira. Mural bat margotzen bukatuko dituzte abenduan jardunaldiak, saioetako fruituak kreatibitate bidez plazaratu asmoz.

### Hiztegi lagungarria

Otu<sup>(1)</sup>, bururatu / Jabetuta<sup>(2)</sup>, konturatuta / Jorratu<sup>(3)</sup>, landu / Xume<sup>(4)</sup>, simple



**Asier**  
Amondo  
AEK

### \_Hankamotz

*Gaztetu dezagun euskara!*

Euskararen Jaiaren gainean egindako iruzkin baten gainean sortu zitzaidan kolaboraziorako ideia. Toño Vallesek Euskararen Jaiaren gazteek horren ardura hartzea eskatzen zuen eta ni harago joango naiz.

Euskarak, euskalgintzak gure eskualdean eta Euskal Herrian oro har, gaztetxe prozesu baten beharra duela sumatzen dut. Euskalgintzan ari garenok, urte batzuk badaramatzagu kontu honetan eta azken urteotan gazte jendearrekin komunikatzeko, enpatia lortzeko eta sinergiak batzeko zailtasuna antzeman dut. Asko gustatuko litzaioke euskararen gainean jende gazte horren pentsaera zein den jakitea. Pentsatu nahi dut euskara eta euskalgintzaren gainean ikuspegi ezberdin eta modernoak dutela baina agian ez dakite horiek guztiak partekatzeko fororik dagoen. Aiaraldeko Kontseilua sortu berri dugu, eta hori izan daiteke toki fresko, berri eta egokia gazteek izan ditzaketen ezinegonak partekatzeko. Honekin ez dut esan nahi zaharrek jubilatuta behar ditugunik, baina bai gazte jendearen artean euskararen inguruan dagoen ezinegon horren ezagutza behar dugula, eta aurrerapausoak ematen baditugu elkarrekin eman behar ditugula.

Ez noa inor lanaz zamatzera, ez noa inori ezer eskatzera, soilik konpartitzeko eskaria da. Belaunaldi ezberdinen arteko partekatzea ondorengo belaunaldiek ere parteka dezaten. Ahalduz eta euskahalduntzen jarrai dezagun.

# Erreportajea



Lezamako baserrian duen liburutegian ireki ditu Balbuena bere bizipen eta esperientzien orriak. Argazkia: aiaraldea.eus

MATEO BALBUENA (Villamartín de Don Sancho, 1913) Amurrioko San Pedro mendian egon zen borrokan 1936an, Leandro Carro batailoi komunistaren teniente gisa. Gaur egun Lezaman bizi da, eta aktibo jarraitzen du. Udaberrian argitaratu zuen bere hamahirugarren liburua.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

## San Pedro mendian borrokatzen egon zinen Gerra Zibilean.

Bai, mendia militarri hartzean parte hartu nuen. Bilboko zutabe batekin etorri nintzen Aiaraldera, 1936ko abuztuaren hasieran, etsaia Urduña konkistatzen saiatu zelako. Erreformatoriora joan ginen (gaur egun "El Refor" bezala ezagutzen den tokira). San Pedro mendia okupatu genuen. Hor egon ginen borrokan egun batzuk, etsaiak amore eman behar izan zuen arte.

Kontuan izan behar dugu boluntarioz osatutako talde bat zela gurea. "Ekintzaile zirkuntantzialak" ginen, formazio militarrik gabekoak. Logikoa den bezala, kaos handia sortzen zuen horrek.

## Behin San Pedro hartuta, zer gertatu zen?

Inguruko mendietara abiatu ginen, etsaiaren balak gure paretik nola igarotzen ziren sentitzen genuela. Gero jakin izan genuen eurak erreketek zirela, herriko jendea. Guk bezain formazio militar eskasa zeukaten.

*"Formazio militarrik gabeko boluntarioak ginen. Kaos handia sortzen zuen horrek"*

*"San Pedro eta Txibiarte hartzea lortu genuenean ekin genion lubakiak egiteari"*

San Pedro nengoela zulo batekin egin nuen topo, txikia. Euria egiten ari zen, eta bertan gertatzea agindu zidaten, talde baten arduradun gisa. Gaueko ordu txikitik argi batzuk ikusi genituen urrunean, apurka apurka guregana gerturatzen. Etsaia zen. Sumatu zuten ez gine-la oraindik Txibiartera iritsi, eta mendi hura hartu nahi zuten. Sua egin genuen orduan. Buruan iltzatua<sup>(?)</sup> dut irudia: gu zulo horretan sartuta, oinak uretan uzkurtuta.

Hurrengo egunerako etsaia nahiko indartua zegoen Txibiarteren. Tiroketa bat hasi zen, baina ez zuen asko iraun. Handik denbora batera UGTko batailoi batek lortu zuen Txibiarte hartzea. Hildako ugari egon ziren mendi horretara iristeko borroketan. Bi mendiak gure eskuetan egonda, lubakiak egiten hasi ginen.

## Hildako ugari egon zirela aipatu duzu.

San Pedro mendiko borroka ez ziren horren odoltsuak izan. Nire agindupean zeudenen ar-

*"San Pedro mendiko borroka ez ziren horren odoltsuak izan. Nire agindupean zeudenen artean ez zen baxarik egon. Txibiarteren hartzea izan zen odoltsuagoa"*

tean ez zen baxarik egon. Txibiarteren hartzea izan zen odoltsuagoa. Etsaiak bazekien eraso egingo genuela, eta askoz hobeto defendatu zuen zonaldea.

Handik hilabete gutxira ofentsiba bat hasi zen, Txibiarte eta San Pedrotik abiatuta. Zortzi egun generamatzen mendian, eta batailoi nazionalista bat gerturatu zitzaigun erreleboa hartu behar genuen egun berean. Akordio batera iritsi ginen eurenkin: fusil-metrailadore bat ematen baziguten arma hori erabiltzen zuten soldadu nazionalistak ordezkaturako genituen ofentsiban. Erasoa ez zen oso ondo atera, ez baikenuen aurrera egitea lortu. Baina nazionalistek ez zitzairen bururatu ere egin arma hura erreklamatzeko. Gure eskutan geratu zen.

## Ganekogortatik ere ibili zinen, ez?

1937an izan zen hori. Soiube aldera bidali gintuzten, italiarrek Bermeo hartzea lortu zutelako. Errelebo batean Arrigorriagako mendietara eramán



gintuzten, Pagasarri aldera. Ume eta heldu asko ikusi genituen bertatik izkutatuta. Zirrara<sup>(2)</sup> handia eragin zigun horrek. Bertan geundela tiro hotsak entzun genituen Arrigorriaga aldetik, etsaia jada bertan zegoenaren seinale.

#### Bilbo erortzearen egongo zen...

Gernikatik hurbil ere egon nintzen hainbat egun, baina jada berandu zen: etsaiak budinezko gerrikoa gainditzea lortu zuen. Erretiratzeko agindua jaso genuen. Lau hildako utzi genituen atzean. Xixoneraino (Asturias) joan nintzen, eta bidean zauritu egin ninduten.

#### Non zauritu zintuzten?

Hankan eta bularraren ezkerreko aldean. Jainkoarengan sinetsiko banu, biziraun izana mirari bat izan zela esango nuke, bomba defentsiboez beteriko gerriko bat bainuen jarria. Ez zuen eztanda egin.

Figuerasen ber-antolatua eta Guadalajarara joan ginen. Albarracin parean geundenean amaitu zen gerra. Handik denbora batera nire kabuz ekin nion

Frantziarainoko bidea egiteari. Komunista bezala nire egin beharra zen gerra amaituta erresistitzen jarraitzea.

*“Komunista bezala nire egin beharra zen gerra amaituta erresistitzen jarraitzea”*

#### Nolakoa izan zen bidaia?

28 egun eman nituen oinez. Gauz egiten nuen bidaia eta egunez lo, topatzen nuen edozein aterpetan. Mendi Galdutik saiatu nintzen Frantziara igarotzen, baina ezin izan nuen. Etxola batean lokartu nintzen. Handik denbora gutxira hotza sentitu nuen buruan: Guardia Zibilen

fusilen kanoiak ziren. Inguratuta zuten etxola.

**Gerra zibilean ardura ugari bete zenituen bando errepublikarrean. Baina behin atxilotuta fusilamenduaz libratu zinen. Nolatan?**

“Desordenu ordenatua” zen frankismoa. Preso eraman ninduten, baina handik sei hilabete-ra niri buruzko informazioa heldu zen Barakaldotik. Pertsona ona nintzela zioten, eta ez nintzela inoiz tabernetan sartzen. Azken hori egia zen. Bertan ez ninduten ezagutzen, eta ez ziren konturatu militantea nintzela. Epaiketa militarra izan nuen beranduago, Bilbon, eta baldintzapeko askatasunean utzi ninduten.

**ELKARRIZKETA OSOA: Mateo Balbuena erantzun guztiak osorik**



#### Hiztegi lagungarria

litzatuta<sup>(1)</sup>, kendu ezinik, itsatsita / Zirrara<sup>(2)</sup>, emozio



**Leandro Carro batailoiko zenbait kide.** Argazkia: Aztarna Elkarte



**Mateo Balbuena (ezkerretik hasita bigarrena) San Pedro mendiaren parean, nazionalistek emandako fusil-metrailadorearekin.** Argazkia: Aztarna elkarte

## IDAZLEA

Hamahiru liburu argitaratu ditu Balbuena. Gehienak entsegu politikoak dira, baina baditu baita eleberririk edota antzezlanak ere.



## PENTSAERIA

*“Hamahiru urte nituela hasi nintzen alderdi komunistarekin harremantzen”*

*“Sistema kapitalista gainditzeko beharrezkoa da objektu izatetik subjektu izatera igarotzea”*



## “Hor borrokatu ginenon pentsaera kontuan eduki beharko litzateke indusketetan”

Urriaren 24an hasi ziren San Pedro mendiko lubakietan indusketak egiten. Igande honetan (azaroak 6) bisita gidatua egingo dute.



**Mateo Balbuena Txibiarte mendira begira.** Argazkia: aiaraldea.eus

#### ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Lezamako baserri batean bizi da Mateo Balbuena. Bere etxe-ko balkoitik ederto ikusten ikusi daitezke San Pedro eta Txibiarte mendiak. Bietan borrokatu zen, 1936an. Orain indusketak egiten ari dira San Pedron, bertan egon daitezkeen arrastoak azaleratu asmoz.

Indusketak egiterako orduan bertan borrokan egon ziren pertsonen “pentsatzeko modua” kontuan eduki beharko litzatekeela uste du Balbuena.

Militante komunistak azaldu duenez, hiru izan ziren inguru horretan egon ziren batailoiak: Leandro Carro (Balbuena berak sustatutakoa<sup>(1)</sup>, komunista), Bakunin (anarkista) eta Araba (nazionalista). “Hiru taldeek batera brigada bat osatzen genuen, aginte militar bakarraren pean”, azaldu du Balbuena, baina azpimarratu du talde bakoitzak “pentsatzeko modu ezberdina” zuela. “Horrek eragin

zuzena izan zuen lubakietan<sup>(2)</sup> izan genuen jokatzeko moduan”.

Antzeko zerbait aipatu du indusketaren arduradunetako bat den Josu Santamariak. “Gure galdera da: zure ideologiak isla dauka mundu materialean? Antzeman<sup>(3)</sup> daiteke utzitako aztarnetan Galdera indartsua da zientifikoki eta saiaturako gara erantzuten”.

#### Bisita gidatua

San Pedroko lubakiak bisitatzeko aukera egongo da datorren igandean (azaroak 6), 10:00etan. Bisita gidatua egingo dute menditik, eta bataila baten antzezpenean ikusteko parada ere izango dute bertaratzen direnek. Lubakikoak elkarreko kideek egingo dute antzezpenean.

#### Hiztegi lagungarria

Sustatu<sup>(1)</sup>, bultzatu / Lubaki<sup>(2)</sup>, trintxera / Antzeman<sup>(3)</sup>, sumatu



**Hasi dira San Pedron indusketak egiten.** Argazkia: San Pedro proiektua

# \_kultura



**Txani**  
Rodriguez  
IDAZLEA

## \_Kamerinoa

### Zinema

Azorinek esan zuen zinematik sosegua eman behar zuela. Ados nago. Zenbait filmek beste sentsazio batzuk ere sortarazten dituzte niregan: amorrua, ezinegona, poza, sinesgaiztasuna... Baina pelikula on bat ikusteak beti sosegua ematen duelakoan nago. Gainera, zinemara joateko aukera dugula jakiteak barretasun xume bat pizten du. Liburuekin gauza bera gertatzen zait. Gustukoa dut etxeko hormak liburuz beteta edukitzea, eta lasaitzen nau poltsan libururen bat eroatea. Hori bai sosegua, gero irakurtzen ez badut ere.

Udazkena zinema barik hasi dugu Laudion. Ez genuen zinemara joateko aukerarik. Eskerrak eguraldi ederra izan dugula igandeko arratsaldeak entretenitzeko. Baina arraroa da Laudio bezalako herri handi batean zinematik ez egotea. Zorionez, aste honetan bueltan dugu filma eskaintza. Zinemakumeak zinema-zikloa dela eta berriro irekiko dira Lanbide Heziketa Ikastetxeko aretoaren ateak. Eskaintza ez da oso zabala, baina bai interesgarria. Ohiko zinema aretoetan pelikula gehiago daude ikusgai, eta udalen antolakuntzatik at daudenez, filmek ez diote zenbait irizpide politiko-sozialei eutsi behar.

Hala edo nola, pelikulak ikusteko aukerak Azorinek aipatutako sosegua emango digu. Hotza etorriko zaigu, eta zinemaren epeltasun hori –sosegu hori- eskertuko dute gure gorputz zein arimek.

# Hainbat belaunaldiren ahotsak pilatzen dituzte Aiaraldeko paretek

90. hamarkadaren hasieran sortu zen Aiaraldeko graffitigileen lehen olatua. Orduz geroztik ugariak izan dira spraya eskuan eskualdeko hormak anonimotasunetik koloreztatzeari ekin dioten herritarrak.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Ez dira gutxi Aiaraldean graffitiz beteta dauden paretek. Oso mota eta egoera ezberdinetako margolanak topatu daitezke eskualdean barrena. Badaude due-la gutxi eginak izan direnak, oraindik tinta freskoa dutela nabaritzen zaienak. Baina badirabaita denboraren poderioz lausotzen<sup>(1)</sup> joan direnak ere, graffitigileek Aiaraldean urteak daramatzatenaren seinale.

Erreportaje hau egiteko Aiaraldea Egunkariak elkarrizketatutako graffitigile guztiek data berdintsuetan kokatzen dute fenomenoaren jaiotza: 90. hamarkadaren hasieran. Garai hartan hasi zen "Aske" ezizeneko graffitigilea eskualdeko paretek bere sinaduraz betetzen. "Motibazioa politikoa zen", oroitu du, "artearen bidez errealitatea islatzea zen asmoa". Presoen askatasunaren aldeko hainbat dinamiketan hartu zuen parte Askek, eta hainbat mural egin zituen eskualdean barrena "PreS.O.S." lemarekin. Gasteizko jendearekin zuen harremana gehienbat. "Gaur egun sekulako mugimendua dago bertan", azaldu du, "oso mural egile onak daude".

### NKR eta Potekumeak

Urteek aurrera egin zuten, eta handik gutxira sortu ziren lehen graffitigile kolektiboak. 1994an NKR eratu zen (*Ke No te korte el Rollo el puto sistema de mierda* gaztelera). Talde horretan bildu ziren eskualdeko hainbat artista: Kush, Azuri, Chaos, Haer, Oner edota Punky, besteak beste.

Taldeak ez zuen denbora asko behar izan Euskal Herriko beste kolektibo batzuekin harremana garatzeko. Modu horretan jaiotzen Potekumeak graffiti taldea (PKM). Lau talde barnebiltzen zituen sigla berri horrek: NKR (Aiaraldea), 1314 (Nerbiogoiena), NG (Bilboko "eskola zaharra") eta Ba-kearen Sexua Hiria (BSH, Gernika). Taldeak funtzionamenduan jarraitzen du gaur egun. Muralak edota "street art"-aren beste diziplina batzuk jorratzen<sup>(2)</sup> dituzte, eta jardunaldi eta topaketa askotan hartzen dute parte.



Eskualdeko txoko askotan topatu daitezke graffitiak. Irudian, Sinerrek eginiko bat. Argazkia: Siner

## 90. hamarkadan hasi zen graffitigileen fenomenoaren Aiaraldean

**Ugariak dira gaur egun aktibo dauden margolari aiaraldearrak: Kush, Azuri, Chaos, Haer, Punky, Seck, Oner, Cras, Joker, Siner, Urbh, Caus, Sudor...**

### Belaunaldi berriak

Baina mugimendua ez da soilik 90. hamarkadatik margotzen dabiltzan horiei esker mantendu. Badaude baita belaunaldi berriak. Horren adibide dira Sudor margolaria edota BDS kolektiboa. Talde horren barruan daude Joker, Caus, Siner edota Urbh graffitigileak, besteak beste. Siner, adibidez, 2009an hasi zen margotzen. "Sprayak baino, pintura plastikoa erabiltzen dugu sarritan", zehaztu du, "merkeagoa da eta garbiguneetan topatu daiteke". Aiaraldean margotzen dute gehienbat, kaleetako hormetan zein poligonoetan; baina batzuetan Bilbo edota Gasteizera ere gerturatzen dira, bertako beste graffitigile batzuekin aritzeko.

Margotzeko orduan legearekin izan ditzaketen arazoengandik inguruan galdetuta, "toki lasaiak" eta "toki azkarrak" bereizten ditu Sinerrek. "Fabrika abandonatu batean, adibidez, kale batean baino askoz lasaiago marraztuko duzu. Hori bai, badaude baita kalearen erdian egunez aritzen diren margolariak. Bi kono jartzen dituzte

baimena dutenaren sentsazioa emateko, eta lasai asko egiten dute lan".

Hala ere, Sinerrek argi du instituzioek graffitigileei lagundu beharko lieketela. "Udalek paretek eskaini beharko liekete margotzeko prest daudenei".

Belaunaldi berriak etengabe sortzen ari direla ziurtatu du Sinerrek. "Gazte asko hasi dira margotzen", azaldu du, "baina gero gehienek utzi egiten diote margotzeari". Emakume graffitigileak, gainera, gutxi dira. Potekumeak taldean badaude batzuk, baina horietako bat bera ere ez da Aiaraldekoa.

Esaten dutenez, artista gisa talentu handia izatea ez da ezinbesteko baldintza mundu horretan hasterako orduan. "Niri txikitzen ez zitzaidan margotzea gus-tatzen", ziurtatu du Sinerrek, "baina behin hasita ezin zara gelditu, adikzioa sortzen du".

### Hiztegi lagungarria

Lausotzen<sup>(1)</sup>, difuminatzen / Jorratu<sup>(2)</sup>, landu

## \_kultura

### GRAFFITIA

*“Aiaraldean grafiti maila eta mugimendu handia dago”*

“AGUR” (Orozko, 1999) grafitigile gaztea da. 12 urte-ekin hasi zen irudi eta hizkiekin arte lanak sortzen.



Eskualdeko pareta asko marraztu ditu Agurrek. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

#### **Ezizenak bereizten zaituzte. Zergatik zara zu “Agur”?**

Askotan esaten nuen hitza zela konturatu nintzen. Horregatik aukeratu nuen.

#### **Noiz eta nola hasi zinen graffitiak egiten?**

Duela bost edo sei urte hasi nintzen, klasean. Lagunekin ere egiten ditut, grafitiaren munduan gaude.

#### **Zer da zuretzat grafitia?**

Zaletasun bat da, hobbya. Batzuk kirola egiten duten bezala, nik grafitiak margotzen ditut. Mezuaren arabera grafitia aldarrikapena edo artelana izan daiteke.

#### **Letrak ala marrazkiak, zerk ezaugarritzen zaitu?**

Betidunik marrazkiak egin ditut, baina orain errazena, politena eta dibertigarriena letrak iruditzen zaizkit, mezua bidaltzea.

#### **Non ikus litezke zure lanak?**

Laudion, Orozkon... Aiaraldean batez ere, baina Bilbon ere baditut lan batzuk.

#### **Nola ikusten duzu Aiaraldeko grafitigintzaren egoera?**

Nahiko ondo. Grafiti egile asko daude, eta maila handia dago.

Mugimendu asko dago. Urduñako tren linean mural asko daude. Trenbideak, industrialdeak, errepideak... margo dai-

tezkeen leku asko daude. Ugaon edo Gardean, esaterako, irudi asko daude. Guk talde bat daukagu, MRT, gehienak Orozkokoak gara baina bada beste herri batzuetako jendea ere. Eskualdean sortzaile asko gaude. Harreman gutxi daukagu, baina ona. Gehienak ezagutzen gara.

#### **Zer falta zaio grafitigintzari orduan?**

Herrietan mural libreak egiteko tokiak. Grafitiek bizitza ematen diete herriko paretei. Gainera, herri erdian badago, edo jende asko pasatzen den tokian, ikusteko polita izateaz gain baloreak transmititzeko balio dezake.

#### **Zure lanetatik bat aukeratu beharko bazenu, zein izango litzake?**

Berganzan egin genuena. Bizikletak hartuta gauzez joan ginen, momentu polita izan zen. Errepide alboko nire lehen grafitia izan zen.

#### **Zeintzuk dira grafitigilearen legeak?**

Errespetua. Grafitiak egiten dituen pertsona baten lana zapaltzea edo marraztea ere oso gaizki dago. Edo, kopiatzea.

#### **Artista bezala zein da zure ametsa?**

Dirua banu munduan zehar bidaiatu eta paretak margotzea.

## Arabar Toponimia eta Onomastikako bigarren topaketak egingo dituzte Amurrion larunbatean

ERREDAKZIOA |

Jon Apodaka Saratxo

Aztarna Elkarteko Etnografikoak datorren azaroaren 5ean Amurrioko Reforren egingo diren 2. Arabar Toponimia eta Onomastikako jardunaldiak antolatu ditu. Topaketan parte hartuko duten hizlarien artean David Peterson, Ander Ros, Ricardo Cierbidel, Joseba Abaitua, Rufino Gómez Villar eta Jose A. González Salazar egongo dira. Duela bi urte antolatu zituen Aztarnak jardunaldiak lehen aldiz.



Duela bi urte egin zituzten topaketak lehenbizikoz. Argazkia: aiaraldea.eus

## Konpromisoa

gure lurrarekin,  
eta gure hizkuntzarekin



**JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar z/g · 01400 Laudio (Araba)**  
Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 [infor@jez.es](mailto:infor@jez.es)

# \_kirola

## AITOR ASPIAZU

*“Espainiako Cow Horse txapelketa irabaztea zaila da, 4. postutik behera geratzea espero nuen”*

AITOR ASPIAZUK (Menagarai, 1977) zaldiekin egiten du lan. Zaldi amerikarrak hezi egiten ditu, eta horrez gain, Cow Horse kirolean lehiatzen da. Espainiako Reined Cow Horse txapelketa irabazi berri du.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

### Noiztik zabilta western cow horse kirola praktikatzen?

2001ean inportatu genituen amerikar zaldiak, eta orduan hasi nintzen western diziplinaren inguruan hezi eta entrenatzen. Europako Cutting txapelkunarekin, eta zaldun alemaniar zein suitzarrekin ere formatu naiz.

### Espainiako Txapelkun izen-datu zintuzten aurrekoan. Pozik al zaude?

Jakina. Egindako lana aitor-tzea da. Zaila da lehena geratzea. Nik aurtan 4. postutik behera geratzea espero nuen. Europatik inportatutako zaldiak egon dira, kaliforniarrek entrenatutakoak...

### Zertan datza kirol hori?

Guk egiten duguna Reined Cow Horse eta Reining-a da. Probaren erdia behirik gabe egiten da, pistako ariketak eta mugimenduak izaten dira. Geldialdiak, piruetak... egitean datza. Behin hori bukatzean behi bat ateratzen dute pistara.

Artzain txakurren gisa erre-korteak egin behar ditu zaldiak behiarekin. Beste ariketa batean behiak lauhazkaka 180 gradutako bira ematea lortu behar du zaldiak, gure aginduak segituaz. Alabaina, ezin da animalia ukitu. Aberea oso zaindua dagoen kirol bat da, tratu txarra ematen badiezu deskalifikatu egiten zaituzte, baita behiak hesiak ukitzeagatik ere. Circlingean, berriz, zaldi eta zaldunak batera behiak “8” bat egitea lortu behar dute. Reiningean berdina egiten da, baina behirik gabe.

### Erabiltzen duzuen pista ere berezia da, ez?

Bai, hesituta egon behar da eta 60x30 metroko neurria izan behar du. Horrez gain, hesiek 1.70 metroko luzeera izan behar dute animaliek salto egin ez dezaten eta min egitea saihesteko.

Lurra are soltea da, zaldiek irristatzeko aukera izan dezaten, baina minik hartu gabe.



Aitor Aspiazu eta Txutxi Larrazabal laudioarra dira Cow Horsean dabilten euskaldun bakarrak. Argazkia: Aitor Aspiazu

*“Artzai txakurren gisa erre-korteak egin behar ditu zaldiak behiarekin. Zaldunaren ahots eta pisu kargarekin interpretatzen dira aginduak”*

*“2017 edo 2018an Espainiako txapelketa Menagarain egitea da gure asmoa”*

### Animaliak asko zaintzen dituzue kirol honetan. Nola?

Westernen asko babesten dira bai zaldia eta bai behia. Pistara sartu bezain pronto epaileak oso adi egoten dira.

Zaldiaren ahoarekin ez da lanik egiten, zaldiak gorputzaren pisu karga eta zaldunaren ahotsa interpretatzen du aginduak ulertzeko. Praktikoki, ez dira aho-uhalak erabiltzen.

Lehiaketaren amaieran, pistatik ateratzean, epailearengana joan behar zara, aho-uhalek kalterik egin ez diotela konprobatzen dute. Zauririk ez dutela, presiorik jasan ez dutela... kontrolatzen dute.

### Eskualdean ba al da cow horsean dabilen beste kirolaririk?

Bai, Euskal Herrian bi gaude, Laudioko Txutxi Larrazabal eta ni. Nire eskolan hasi zen, eta aurtan Espainiako txapelketa lehiatu da: hasiberrien mailan seigarren geratu da, ez dago batere gaizki.

Espainian 60-70 lagunek baino ez dute kirol hau praktikatzen.

### Txapelketei dagokienez, zenbat proba izaten dituzue?

Aurtan Espainiako txapelketa antolatu den laugarren aldia da. Datorren urtean edo hurrengoan, 2018an, Espainiako txapelketa Menagarain egitea da asmoa. Apuntatzen diren zaldi eta zaldunen arabera jakingo dugu aurre egin diezaiokegun edo ez. Diziplina amerikarra izaki, ez dago Espainian federaziorik. Gu National Reined Cow Horse Association elkartearen barruan gaude eta beraiek dira gidatzen eta federatzen gaituztenak.

### Etorrizunera begira, zeintzuk dira zure helburuak?

Nazioen Kopan Espainia ordezkatzeko orain arte ez dugu behar adina zaldunik izan, baina hurrengo urtean baietz espero dut. Espainian ez dago oso errotuta kirol hau, horregatik Menagaraitik Frantzia eta Italia-ra joaten gara.

Lehiatzeaz gain Cow Horse eskolak eta zaldiak heztekoak ematen ditut Espainian barrena. Nahi duenak galdetzea baino ez dauka.

## Luisa Ibarrolak 22. bukatu du Europako ziklokross proba



### ERREDAKZIOA |

Europako ziklokross txapelketa saratxoarrak 22. postua eskuratu zuen. Urriaren 29an jokatu zen Pont Chateaux proba, eta 23 urtez beherakoen kategorian lehiatu zen aiaraldearra. Txirindularia pozik azaldu da lortutako emaitzarekin: “Planifikatu bezala atera zait lasterketa”.


## Ibone eta Aaron Sanchez neba arrebak bigarren Arratiako Raidean



### ERREDAKZIOA |

Ibone Sanchez eta Aaron Garmendia neba-arrebek bigarren postua lortu zuten bosgarrenez antolatutako Arratia Raidean. Katgoria mistoan zapaldu zuten podiuma laudioarrek. Alabaina, eskualdeko hainbat kirolariek ere hartu zuten parte proban.

## Iker Yuste pilotaria garaile Baque txapelketan, 18-3 irabazita



### ERREDAKZIOA |

Herriaren Pilota Elkarteko Iker Yuste kirolariak irabazi du Baque Txapelketa. Yuste kadeteen mailan lehiatu zen, eta 18-3 irabazi zion Sopolako Argaluz pilotariari. Txapelketa Bizkaiko pilotari onenek parte hartzen dute.

## \_kirola

## Maria Barbero motoziklistak hirugarren postuan bukatu du Espainiako Abiadura Kopa



Erorketa baten ondorioz ezin izan zuen azken proban lehiatu. Argazkia: M.B

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Erorketa bat medio, Maria Barbero urduñarrak ezin izan du Espainiako Abiadura Kopa irabazi. Nafarroako Los Arcos zirkuituan burututako azken proban, entrenatzen ari zela izan zuen istripua moto gidariak, bihurgune batean "hegan" atera baitzen.

### Erorketa ugari

Antolatzaileen arabera, guztira 74 erorketa egon ziren jardunaldi osoan.

Hala, mediku probak egin ostean ezin izan zuen asteburuko lasterketan lehiatu, politraumatismoa diagnostikatu zioten eta. Barberoren arabera, nahiz eta modurik okerranean bukatu, Kopa irabazi duela sentitzen du.

Urriaren 22 eta 23ko jardunaldien ondotik, beraz, Espainiako Abiadura Kopako podiuma Cristina Crispik, Sonia Garcia Lucio eta Maria Barberok osatu dute. Hirugarren postuan bukatu du denboraldia, beraz, urduñarrak.

Ducati 1299 Panigale motorraren lehiatu da aurtengo denboraldian Barbero. Iaz, ibilgailu horrekin etxeratu zuen Espainiako Abiadura Kopa. Aurtengo helbu-

ria titulua mantentzea zen. Open 1000 kategorian neurtu ditu indarrak urduñarrak.

### Emakumeen motoziklismoa

Hain zuzen, duela bi urte aurkeztu zuten Emakumezkoen Espainiako Abiadura Kopa. Emakumezkoen motoziklismoa sustatzeko erabaki zuen hartzea parte Barberok: "Nahiz eta gutxiengoa izan gizonen esfortzu bera egiten dugu. Haurrek emakume erreferenteak ere izatea da nire helburua, bestela, zaila delako neskek motoziklismoa etorkizuneko aukera erreala bezala ikustea eta".

Barberoren arabera, gizonen eta emakumezkoen baldintzak berdinak dira, baina aukerak ez. "Zaila da babesleak lortzea emakumezkoen karrerak gutxi eta ikusezinak direnean", adierazi du.

Aiaraldearraren hurrengo erronka, Montmelóko 24 orduko lasterketa izango da, Katalunian egiten dena. Lau kiderekin aurkeztuko da proba, baina aitor-tortu duenez, momentuz bera da izena eman duen emakume bakarra.



ATLETISMOA: Iزار Olivares, Uxue Gonzalez, Tania Alonso, Janire Velasco eta Naroa Carnotak osatutako taldeak kadete kategoriako garaipena eskuratu zuen Bilboko IV. Itsas Milian. Argazkia: Audio Atletismo Kluba

## Mendiko Lagunak eta Gorobel ibilaldia, ehunka mendizale jasotzeko prest

Azaroaren 6an izango da XXX. Gorobel mendi ibilaldia. Bi ibilaldi egongo dira, luzea (42km) eta laburra (26km). Aurten ere argazki eta filma laburren txapelketa egingo dute.



Ehunka mendizale espero dituzte aurten ere. Argazkia: Julen Mendiguren

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Gaur (azaroak 3) bukatuko da Gorobel mendi ibilaldian izena emateko epea. Azaroaren 6an egingo dute XXX. edizioa duen martxa. Mendiko Lagunak taldeak bi zirkuitu proposatu ditu. Luzeak

42 kilometro izango ditu, eta laburrak 26. Aurreratu dutenez, argazki eta filma laburren txapelketa ere egingo dute.

Hala, bidean zehar partaideek jasotako irudiek sariak eskura-

tzeko aukera izango dute. Argazki lehiaketari dagokionez bi modalitate egongo dira, argazki onenarena eta bilduma onenarena. Azken horretan, pertsona bakoitzak 3 irudiz osatutako sorta bat aurkeztu beharko du, Gorobel ibilaldiarekin zerikusia duena.

Aurtengo nobedadea "Fotofacebook" kategorია da, Mendiko Lagunak Facebook orriko horman atsegite gehien lortzen dituen irudiak irabaziko duena. 17:00etan itxiko da modalitate honetan parte hartzeko epea.

Bideo laburren lehiaketaren baitan, berriz, 30 segundo eta 3 minutu bitarteko lanak aurkeztu ahaliko dira. Gaia librea da, baina Gorobel ibilaldian zehar grabatutako irudiekin osatua egon beharko da lana.

Bideo onenak 150 euro eskuratuko ditu, argazki eta bilduma onenak 100 euro eta "Fotofacebook" modalitateko garaileak 50 euro.

## Zuriñe Frutos, Euskal Herriko mendi duatloien zirkuitua irabaztetik geroz eta gertuago



Zuriñe Frutos, Amasako mendi duatloian. Argazkia: ZuinAnder Mugica

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Zuriñe Frutos Euskal Herriko mendi duatloien zirkuituko liderra da, Amasako mendi duatloian lortutako garaipenari esker.

Duela bi larunbat izan zen proba, eta lehen postuan helmugaratu zen artziniagarra. Ondorioz, Euskal Herriko Mendi duatloi zirkuituan liderra da.

Facebook orrian azaldu duenez, euria eta lokatzak dibertigarri bilakatu zuen asteburuko pro-

ba. Euskal Herriko txapelketa bukatzeko lau proba baino ez dira falta: Usansolokoa, Eakoa, Biriaturkoa eta Zegamakoa.

Azaroaren 6an izango du hurrengo jardunaldia Frutosek, Usansolon. Bertan, 5.54 kilometroko bidea egin beharko du artziniagarren korrika (234m+), 12.68 kilometro bizikletaz (449m+) eta amaitzeko beste 3.12 km korrika (34m+).

## Aitor Reyk zilarrezko domina lortu du Euskadiko selekzioarekin



ERREDAKZIOA |

Aitor Rey Gastaka txirrindulari laudioarrak Espainiako Txapelketan parte hartu du Euskadiko selekzioarekin.

Guztira, hiru proba burutu zituen urriaren erdialdean izandako pistako lehiaketan. Pertsekuzio indibidualean, Espainiako zortzigarren postua lortu zuen, taldekako pertsekuzioetan bigarren eta Scrach kategorian zortzigarren.

Taldekako lehian, Valentziako selekzioa garaitu zuten lehen-dabizi, baina Balear uhartekoei ezin izan zieten aurre egin. Bana-ka, berriz, bi zortzigarren postu lortu dituelako pozik itzuli da kirolaria etxera. Orain, denboraldi berria abiatu arte atseden hartuko du.

# \_Herriko plaza


## \_agurrak



### Markel

Zorionaak potxoloo!! Oso ondo pasa eguna gure topografo maitea. Txokolatzeko muxu bat!

Neskalaguna



### Izaro eta Nagore

Zorionak kutxifritinaz! Oso ondo pasa egun horretan eta ez jan tarta asko guk ere nahi dugu ta!

DBH 2ko lagunak



### Malen

Zorionak eta muxu handia Kepa eta Unaxen partez. Erregalu asko izan!

Kepa eta Unax



### Ainhoa

Bat gehiago... eta oraindik batera bizi eta ospatzeko ditugunak!! Zorionak guapisima eta urte askotarako!

Maider



## \_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus) helbidera azaroaren 11a baino lehen.

## \_denborapasak

		Elaia	Eritasunen eragilea	Ugatzak	(Infin.) Osatu
		Urtehortar	IZENA	Seinale mota	
Adinak		Presio unitate	Denbora librea	Modu latzean	Nafarroa Behereko udalerrria
Ideari dagokio	Erosten du	Sumendietako gaia	Sumendietako gaia	Eskaini eta ez eman	
Emakume izena					
Aia					
		Ergel			
		Infusio mota			
Estatuko presidente					
Jaten du					
		Engainu, azpikeria			
		Potasioa			
...sua salatzan du			Doministakua		

❖ Tertangako harritzarra

### ERRAZA

			2			7
3	8	2				5
	6		5	3		
7	2		4	3		5 6
4	3	5		6	7	
6			7	8	5	4
			8		2	
	7	4	3	5	2	9 6
		3		7	6	
						4

### ZAILA

	2	6	4			
8	5					
		9	5			7
		2		3	6	
						6
	7			5		8
	1					4
			9	2	5	
				7		3

## \_horoskopoa



### TARTALO 01.20 - 02.18

Zergatik ez artista sena garatzen hasi? Ez gelditu beti etxeko sofan atsedean hartzen, has zaitez herri-ekintza ezberdinak bilatzen eta zure magia arte bilakatzeko. Nork daki, lana arintzen eta dirua irabazten lagunduko dizu agian!



### HERENSUGE 03.21 - 04.20

Dirua aurrezten ikasi beharko zenuke, baliteke aurrerantzean diru horren beharra izatea, ez soilik ordainketak egiteko, baita esperientzia bereziak bizitzeko ere. Diruak, zoritxarrez, abentura asko bizitzeko lagunduko dizu.



### BASAJAUN 05.21 - 06.20

Zergatik egon lagun baten zain bidai hori egiteko? Ez duzu inoren beharra bizipen ahaztezinak bizitzeko. Bakarrik bidaiatzeak zure buruarekiko segurtasuna irabazten eta pertsona berriak ezagutzen lagunduko dizu.



### GAUEKO 07.21 - 08.21

Zure momentua da. Praxak jantzi, zapatilak jarri, ur botila bete eta atara korrika! Zure gorputzari denbora eman eta arreta jarri, osasun fisikoa osasun mentalean bihurtzen da ia beti. Jarrera kontua da, saiatu!



### AKERBELTZ 09.23 - 10.22

Noiztik ez zoaz gustuko duzun abeslari hori ikustera? Kontzertua urrun egon daiteke, baina lagunak onenarekin abentura ahaztezin bat bizitzeko aitzakia izan daiteke agian, ezta? Ez eman buelta gehiegi erabakiei eta bizi ezazu oraina!



### ZIRIPOT 11.23 - 12.20

Tristura islatzen da zure begi erraldoi horietan. Lagun horrek sentiarazi dizuna barkaezina izan daiteke eta konpontzea bere esku dago. Baina zuk bakarrik jarri die-zaiokezu muga tristurari.



### GALTZAGORRIK 02.19 - 03.20

Azkenaldi honetan ahul zabiltza, hanka okertzen duzun bakoitzean lesio berria egiten duzu. Lesioak ondo sendatzeko pazientzia behar da, pazientzia garatzeko gogoak izan behar dituzu, eta noski, gogoia izateko positiboa izan behar zara.



### LAMIA 04.21 - 05.20

Helburuak lortzeko ez dago jokaldi bakarra. Partxisean aritzen garenean bezala aurrera egiteko askotan txanda itxaron behar da, eta fitxa jaten dugutenean galtzen ikasi behar dugu. Baina galtze horretan jokaldi berriak ikasten ditugu.



### BASANDERE 06.21 - 07.20

Zu bai zikina! Zikindu bai, baina txukundu ez. Etxekoak zure atzetik ibili behar dira lagundu nahian gauzak gehiago nahaspilatzen dituzulako. Lan polita aukeratzeko duzu eta etxeko lanetatik desatseginena besteentzat, hori aurpegia zurea!



### JENTILAK 08.22 - 09.22

Lo, lo eta lo, hori da egiten duzun guztia. Pena da egunak eskaintzen dizkizun abenturak galdu behar izatea ohean orduak eta orduak emateagatik. Ametsak amets izaten jarraituko dute errealtatera bueltatzen ez bazara, esnatu!



### MARI 10.23 - 11.22

Printze/printzesaren zain egon ohi zara, baina maite duzun hori bereziki sentitzea zure esku dago bakarrik. Sentimenduak dira magia egingo dutenak. Hasieran hala dela iruditzen ez bazaizu ere, denborari aukera eman konprobatzeko.



### SUGAAR 12.20 - 01.19

Sexu kontuetan ez zara eroso sentitzen eta horrela izan behar duela barneratuta daukazu. Ez zaitez daukunarekin konformatu eta esperientzia berriak kontuan hartu. Gogoratu zure harremanean bik edo nahi bestek hartzen duzuela parte.

### DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



# \_irakurlearen txokoa

## \_agenda

### 03.11 OSTEGUNA

19:00 LAUDIO  
**ERAKUSTALDI GASTRONOMIKOA**  
Mikologia astea  
Zubiko etxea

### 04.11 OSTIRALA

17:30 LAUDIO  
**TAILERRA**  
"Haimetatik maitasun erromantikoa apurtuz"  
Kultura Etxea

18:00 ARTZINIEGA  
**UMEENTZAKO TAILERRA**  
Stop-motion  
Udal-liburutegia

18:30 LAUDIO  
**SARI BANAKETA ETA ERAKUSTALDIA**  
Mikologia astea  
Zubiko etxea

19:30 AMURRIO  
**HITZALDIA**  
"Euskal Herriko ziza bitxiak"  
Kultura Etxea

20:00 URDUÑA  
**ELKARRETARATZEA**  
Dispersioaren aurkako bira  
Foru Plaza

22:30 AMURRIO  
**KONTZERTUA**  
Garoa eta Lauroba  
Burubio kultur gunea  
Sarrera: 5 euro

### 05.11 LARUNBATA

09:30 AMURRIO  
**TOPAKETAK II. Toponimia eta onomastika topaketak**  
Reforamurrio enpresaldea

10:00 AMURRIO  
**BISITA GIDATUA**  
San Pedroko indusketak  
San Pedro mendia

13:30 OROZKO  
**EKITALDIA**  
Dispersioaren aurkako Arabako bira  
Zubiaur plaza

17:30 LAUDIO  
**UMEENTZAKO TAILERRA**  
Sorgin zapatuak: Eskulanak  
Udal ludoteka

17:30 ARTZINIEGA  
**IPUIN KONTALARIA**  
"Max eta Mia historiaurrean"  
Udal liburutegia

20:00 AMURRIO  
**ANTZERKIA**  
"El makinista"  
Amurrio Antzokia

20:00 ARETA  
**IKUSKIZUNA**  
"Mara feat. Milay"  
La Putxera ateneoa

20:00 LAUDIO  
**KONTZERTUA**  
Nova Musica Antiqua  
San Pedro Lamuza parroikia

22:00 AMURRIO  
**KONTZERTUA**  
Moonsine Wagon  
Burubio kultur gunea

### 06.11 IGANDEA

#### OKONDOKO UDAZKEN AZOKA



11:30 Untxien eta euskal oiloen erakusketa eta lehiaketa  
12:30 Umeentzako tailerrak  
13:00 Dantza plaza  
13:15 Haragi gisatuaren dastaketa  
14:00 Sari banaketa  
15:00 Zozketa

07:00 AMURRIO  
**MENDI MARTXA XXX. Gorobel Ibilaldia**  
Herriko plaza

09:30 OROZKO  
**BISITA GIDATUA**  
Santa Marina eta Larragorri inguruko jentilen bila  
Museoa

10:00 AMURRIO  
**MIKOTURISMO EGUNAK**  
Perretxiko sailkapena  
Frontoia

10:00 LAUDIO  
**MIKOLOGIA ASTEA XXXVI. Udazkeneko Mikologia Erakusketa, XXIX. Haur eta Gazteentzako Marrakzi Lehiaketa eta XXX. Gastronomia Lehiaketa**  
Herriko Plaza

10:00 AMURRIO  
**BISITA GIDATUA ETA ANTZEZPENA**  
San Pedroko indusketak  
San Pedro mendia

11:00 KEXAA  
**UMEENTZAKO IKASTAROA**  
Musikoterapia  
Arcos de Quejana jatetxea

18:00 AMURRIO  
**ZINEMA**  
"Baile en el sindicato"  
Reforamurrio enpresaldea

### 07.11 ASTELEHENA

17:00 AMURRIO  
**JARDUNALDIAK**  
Aiar Industry 4.0  
Reforamurrio enpresaldea

17:00 AMURRIO  
**JARDUNALDIAK**  
Aiar Industry 4.0  
Reforamurrio enpresaldea

20:00 LAUDIO  
**ELKARRETARATZEA**  
Dispersioaren aurkako bira  
Zumalakarregi kalea

### 08.11 ASTEARTEA

10:00 LAUDIO  
**IKASTAROA**  
Mendetakotasuna duten pertsonen familia zaintzaileei zuzendutako hitzaldi informatiboa  
Erabilera anitzeko aretoa

17:00 LAUDIO  
**AURKEZPEN IREKIA**  
Hirigintza eta genero ikuspegia  
Kultur Etxea

18:00 URDUÑA  
**AURKEZPEN PUBLIKOA**  
Indarkeria matxistaren aurkako prebetzio eta arreta protokoloa  
Foru Plaza

### 09.11 ASTEAZKENA

16:45 LAUDIO  
**TAILERRA ETA ZINEMA**  
Amama eta aititeak: "Up"  
Kultura Etxea

17:00 LAUDIO  
**AURKEZPEN IREKIA**  
Hirigintza eta genero ikuspegia (2. saioa)  
Kultur Etxea

### 11.11 OSTIRALA

09:00 AMURRIO  
**HITZALDIA**  
Erabili zure emozioak modu burutsuan  
Reforamurrio enpresaldea

16:30 AMURRIO  
**HITZALDI INFORMATIBOA**  
Mendekoak diren senideak zaintzen dituzten familientzat  
Kultura Etxea

17:30 LAUDIO  
**TAILERRA**  
Emakumeak eta sormena  
Kultur Etxea

18:30 AMURRIO  
**TABERNA-HITZALDIA**  
San Pedroko indusketen emaitzak  
Atxubi taberna

### 09.12 LARUNBATA

09:00 LEZAMA  
**IBILALDIA**  
Lezamako II. mendi ibilaldia  
Herriko txokoa

10:00 AMURRIO  
**HITZALDIA**  
Hilerokoa mugimendu kontzientearen bidez  
Herriko txokoa

17:30 LAUDIO  
**MAGIA IKUSKIZUNA**  
Kidam magoa  
Gardeako Gizarte Etxea

20:00 LAUDIO  
**KONTZERTUA**  
La Salve abesbatza  
Done Petri parroikia

#### LEZAMAKO JAIAK



#### 11.11 OSTIRALA

12:00 Meza  
12:30 Zozketa  
14:00 65 urtez gorakoentzako bazkaria  
18:00 Herriko briska txapelketa parekidea  
20:00 Txokolatada

#### 12.11 LARUNBATA

09:00 Mendi martxa  
17:00 Mus txapelketa (izen ematea 16:30etan)  
17:30 Haurrentzako jolasak  
19:30 Herrien arteko herri kirolak  
22:00 Herri afaria  
00:00 Kontzertuak: The Monkey Painters eta Honat

## ZINEMA

#### 03.11 OSTEGUNA

"UN OTOÑO SIN BERLIN"  
Laudioko LHUIIn, 18:30etan

#### 05.11 LARUNBATA

"EL HOMBRE DE LAS MIL CARAS"  
Laudioko LHUIIn, 17:30etan eta 20:00etan

#### 06.11 IGANDEA

"PETER Y EL DRAGÓN"  
Amurrio antzokian 17:30etan

"MY SKINNY SISTER"  
Laudioko LHUIIn, 17:30etan eta 20:00etan

"BRIDGET JONE'S BABY"  
Amurrio Antzokian  
19:30etan



**PISUA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 125.000 €  
55 m², 2 gela, sukaldea eraberrituta, egongela, bainugela, trastelekua, altzariz hornituta, egoera bikaina.  
Ereff.: 167.666

**ETXEBIZITZA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 290.000 €  
280 m², 6 gela, 2 egongela, garajea eta trastelekua. Negoziagarria.  
Ereff.: 167.736



**PISUA SALGAI OKONDON**  
Prezioa: 119.000 €  
87 m², 3 gela, 2 bainugela, sukaldea balkoi esekitokiarekin, egongela jantokiarekin, trastelekua eta garajea.  
Ereff.: 167.561

**PISUA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 156.000 €  
80 m², 3 gela, bainugela eraberrituta, sukaldea, egongela balkoiarekin, berogailua, igogailua, kabineta eta jantokia. Negoziagarria.  
Ereff.: 167.749



**PISUA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 120.000 €  
70 m², 3 gela, bainugela, egongela, balkoiarekin eta trastelekua. Negoziagarria.  
Ereff.: 167.699

**PISUA SALGAI LAUDION**  
Prezioa: 165.000 €  
60 m², 2 gela, bainugela, sukaldea amerikarra, egongela, trastelekua, igogailua. Negoziagarria.  
Ereff.: 167.661

## \_ezin galdu



**HERRI GALDEKETAREN II. URTEURRENA:** Arrankudiaga-Zollon eginiko herri galdeketa urteurren festa egingo dute asteburuan. Azaroaren 4an dokumentala estreinatuko dute 19:30etan Gizarte Etxean. Azaroaren 6an, berriz, makina bat ekintza egingo dituzte Elexalden, 12:30etatik aurrera.



**SAN PEDROKO INDUSKETAK:** Amurrioko San Pedromendiko lubakietako indusketen herri zuzenean jasotzeko aukera egongo da larunbat eta igandean, bisita gidatuak egingo baitituzte. Igandeko zitan, gainera, bataila baten antzezpena egongo da, Lubakikoak taldearen eskutik.

www.etxaurre.com  
946 72 85 50  
Zumalakarregi, 38 Laudio



Itziar  
Urquijo Cela  
PSIKOPEDAGOGOIA

\_Leihotik

Zugzwang

Zugzwanga xakeko jokaldia da. Posible den edozein mugimendu eginda egoera okerrago batera eramaten gaituen mugimendua da zugzwanga, galtzeko puntura iritsi arte. Zugzwanga ematen denean, onena, geldirik geratzea. Zugzwanga, besteen gainetik, mugimendu ausarta.

Geldirik egoteak batzuetan eskantotasuna eta amore ematea dakar. Bestetan aldiz, gelditasunaren seinale bilakatzen dira behaketa eta hausnarketa. Xakeak bizitzarekin duen erkaketa nabaria izan da askorentzat, batzuetan aurrera joan ahala, atzera joateko aukera galdu egiten dugularik, esanguratsua dena defendatzen ikasiz. Jokoaren bukaeran, bizitzan ez bezala, jokaldi onak baino, akats gutxien batzen dituen izaten da irabazle.

Zenbat fitxa galdu zugzwang horren eruz, zenbat lauki aurreratu horren izenean. Zugzwang, hitz lasaia. Zugzwang, hitz pentsakorra. Zugzwang, hitz arriskutsua, ahoskatzen duzun erako gelditasun horretan sartu eta bertan geratzeko arriskuan zaudelako.

## ANGELA MARAÑON ORUETA

“Bero gehiago ematen du eskuz egindako jantzi batek, artile berbera erabilita ere”

ANGELA MARAÑON ORUETAK (Laudio, 1955) urteak daramatza artilearekin kaikuak eta antzeko jantziak egiten. Ostegunero Laudioko Herriko plazako azokan egoten da.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

### Noiztik daramazu kaikuak egiten?

Nagusitzean ekin nion kaikuak egiteari, ezkondu eta seme-alabak izan ostean. Orduan hasi nintzen, eta orduz geroztik nabil artile artean.

### Artilea ere egiten duzu?

Badakit artilea iruten, baina lan

handia suposatzen du horrek, artile asko behar delako jantzi bat egiteko. Horregatik, erosi egiten dut artilea.

Jertse, galtzerdi edota txalekoak egiten ditut. Hortaz gain, kaikuak ere egiten ditut.

### Artilezko jantziak egiteko pazientzia beharrezkoa dela esan ohi da.

Bai, pazientzia asko izan behar

duzu. Jantziaren marrazkia aurrean izanda puntuka joan behar zara, jantziari une bakoitzean behar duen forma eta kolorea emateko adi.

### Denbora asko baliatu behar duzu, beraz.

Jantziaren tamainaren arabera denbora gehiago edo gutxiago behar izaten dut. Jertse arrunt bat egiteko lau egun baliatzen ditut, baina ordu asko sartuz, noski. Beraz, bai, ordu asko behar izaten ditut.

### Osteguneko merkatura ekartzen dituzu kaikuak.

Ortuko produktuen denboraldia amaitzen doan heinean jantzi gehiago ekartzen ditut Laudioko azokara, postu osoa betetzeko. Badago jantziak ikusi eta berarentzat bat propio egitea eskatzen didan jendea.

### Jende asko?

Ez, jende gutxi izan ohi da, perfil anitzekoak. Olentzero eta jai garaietan jasotzen ditut enkariguak batik bat.

### Zer du eskuz egindako kaiku batek fabrika batean sortutakoak ez duena?

Bero gehiago ematen du eskuz egindako jantzi batek, artile berbera erabilita ere. Zergatik? Ez dakigu.

### Urte ugari daramatzazu lan honetan. Badago erreleborik?

Badago jende berria, baina ez asko. Nik gogoko dut artilearekin jantziak egitea, entretenitu egiten naiz, eta diru apur bat irabaztearekin konformatzen naiz. Baina inbertitu duzun denbora guztiaren arabera prezioa jartzen badiozu jantziari fabrikari egindako bat baino lau aldiz garestiagoa izango da.



Garbiketa orokorrak, obra amaieraren garbiketak, komunitateen, lokalen eta bulegoen garbiketak egiten ditugu. Tapizerien garbiketaz ere arduratzen gara: sofak, aulkiak, koltxoiak, ...

limpiezas.loumara@gmail.com

+ 620075132